



## EKINTZA PLANA

Jarduera honen helburua ikasleek Azpeitiko landa eremua babesteko eta sustatzeko Ekintza Plana diseinatzea da.

Egin beharreko Ekintza Planak ondorengo atalak izango ditu:

- 1 - Diagnostikoa. Herriko landa gunearen egungo egoera aztertuko dute herriko nekazal eta abeltzaintzaren ereduaren konparaketa irizpide jasangarrien arabera eginez.
- 2 - Landa Ingurunearen Garapenerako Programaren Ebaluazioa (LGP) Urola Kosta 2007-2013 dokumentuaren emaitzetan oinarrituta etorkizuneko erronkak identifikatuko dituzte.
- 3- Erronka horiek abiapuntu hartuta kudeaketarako proposamenak eta konpromisoak finkatuko dituzte.

Lanak PowerPoint formatuan aurkez daitezke.



Batxilergoa



Talde txikitan antolatuta, batxilergoko ikasleek ondorengo puntuak lantzea proposatzen dugu:

- 1- Ustiapenek zein aldaketa jasan dituzte azken hamarkadetan azienda motaren edo laborearen arabera (nekazaritza zein abeltzaintza izan). Zer ondorio atera daitezke aldaketa horietatik?

---

---

---

- 2- Oro har nekazaritza intentsiboagoa da edo estentsiboagoa?

---

---

---

- 3- Zer presentzia dute Euskolabel edota beste jatorrizko izendapenak? Zehaztu zeintzuk.

---

---

---



# ELIKADURA JASANGARRIA

4- Azpeitian ekoizpen ekologikorik egiten al da? Zein produktutan? Ekoizpen osotik zer proportzio suposatuko luke?

---

---

---

---

---

---

---

---

5- Nola dago bideratuta oro har ekoizpenaren salmenta?

---

---

---

---

---

---

---

---

6- Balora itzazue 2007-2013 epealdian landa eremuaren kudeaketan emandako aurrerapauso nagusienak?

---

---

---

---

---

---

---

---

7- Azal itzazue kudeaketaren gabeziak.

---

---

---

---

---

---

---

---

8- Zeintzuk dira nekazaritza eta abeltzaintza sustatzeko indartu beharreko lerro estrategikoak (esaterako, nekazaritza intentsiboa, nekazaritza ekologikoa, bioteknologiak...)?

---

---

---

---

9- Ba al du eskumenik Udalak alor horretan?

---

---

---

---

---

10- Zein dira etorkizunean Udaletik jorratu daitezkeen atalak? Zein ekintzekin? Azal itzazue gelan adostutako proposamenak.

---

---

---

---

---

---

## MATERIAL LAGUNGARRIA

⇒ "Landa Ingurunearen Garapenerako Programaren Ebaluazioa Urola Kosta 2007-2013" (Urkome). [www.urkome.net](http://www.urkome.net)

⇒ "Análisi estatistikoa" (Orkatz Goenaga, 2009)

⇒ **Elkarrekin Eraikitzen proiektua**, Iraurgi Berritzen Ezagutza Sarearen barnean kokatzen den ikastetxeen taldean azken urteetan eman den elkarlanaren ondorio da. Proiektu horrek, eskualdeko hainbat ikastetxek amankomunean identifikatu zuten behar konkretu bati elkarrekintzekin erantzuna ematea du helburu.

Hori horrela izanda, 2013-2014 Azkoitiko eta Azpeitiko 5 ikastetxek 9 kasu aztertu zituzten, horien artean, lehen sektorea. Ikastetxe bakoitzak gai honi buruz bere proposamena luzatu zuen ekainaren 20an Azkoitiko Intxausti Jauregian egin zen aurkezpen ekitaldian. Lan horiek eskuragari daude ondorengo helbidean:

[www.elkarrekineraikitzen.wordpress.com](http://www.elkarrekineraikitzen.wordpress.com)



2009-2010. ikasturtean, **Elikadura eta Osasuna** gaia landu genuen. Gai horrekin lotuta, zeuek konpromiso batzuk hartu zenituzten eta Udalari proposamen batzuk luzatu. Jarraian, zeuek hartutako konpromisoak dituzue, alde batetik, eta Udalari egin zenizkioten proposamenak, bestetik. Konpromisoak berrikusi beharko dituzue, ea betetzen dituzuen ala ez. Proposamenen inguruan, berriz, aldoan Udalak emandako erantzunak ageri dira. Erantzun horien arabera, aurten berriro eska ditzakezue edo ez.